

## Eilastasuna Fondoa 2009

Proiektua: Errekurtso gutxiko pertsonen goi mailako ikasketak egiteko aukera zabaltzea

<b>Lekua</b>	San Salvador	<b>Bertako antolaketa:</b>	CRIPDES
<b>Sektorea:</b>	Hezkuntza	<b>Eskatutako laguntza:</b>	2997.71 euro

### Bertako antolakuntza

CRIPDES elkarteak 1984an sortutako erakundea da, inolako irabazi asmorik ez duena. 2006. urtetik aurrera Gobernuaren onarpena du, eta baita izaera juridikoa ere. Sortu zenean, hauxe zuen helburu: gatazka armatuagatik desplazatuak ziren pertsonen eskubideak defendatzea eta desplazatuak berriro sorterrira ekartzea. Gatazka armatua bukatu eta gero, 1992an, CRIPDES elkarteak beste helburu hauek jarri zituen: gatazka bitartean eta ondoren sortutako herri komunitateen garapena bultzatzea berauen egoera soziala, ekonomikoa eta politikoa hobetuz herritarren bizi baldintza egokiak eta parte hartze politikoa eskuratzen joateko. Eta aldi berean, El Salvador-eko politikan eta demokratizazioan parte hartzeko.

CRIPDES elkarteak, gutxi gora behera, 100 mila pertsonen arazoei egiten die aurre, nekazaritza sektoreko 296 komunitateko biztanleei. Hamalau departamentutik, zazpitan egiten du lan. Egoitza nagusia San Salvador hiriburuan du eta beste bost beste hainbat lekutan banatuak.

### Zer nolako proiektua da

CRIPDES elkartearen instalazioak, bere sorretatik, gune garrantzitsuak dira komunitateetako jendea elkartzeko. Nekazaritzako jendeak edozein tramite egitera hiriburura etorri behar duenean, instalazio hauetan pasa dezake gaua. Gauza bera gertatu zen hainbat ikaslerekin ere, azterketak egitera etorri behar izan zutenean. Hortik sortu zen egoitza unibertsitario baten antzeko zerbait moldatu beharra, instalazioak hobetuta, jendea egoera hobean hartzeko.

#### Diagnostikoa:

CRIPDES lanean ari den komunitateko hamalau gazte (bost neska eta bost mutil) hasiak dira ikasketara unibertsitarioak egiten hainbat karreratan. Gehienak lehen hiru kurtsotan daude. Ikasketekin jarraitzeko laguntza behar dute. Batez ere, astean zehar San Salvador-en gelditzeko lekua behar dute.

CRIPDES elkarteak leku bat jarri die horretarako, baina oinarritzko errekurtsioak falta dira leku hori taxuz antolatu ahal izateko. Bi logela handi dira, kamaroteetan kokatuak, bat bereziki emakumeentzat.

Bainugelak kanpoan, sukaldea eta erabilera anitzeko gela koxkor bat, hori da guztia. Ez dago lekurik egunean zehar ikasten aritzeko. Gauetarako, CRIPDES-ek duen bilera-gela erabiliko dute ikasi eta eskolako lanak bertan egiteko.

Laguntza jasoko duten pertsonak San Salvador-etik urrun eta nekazari zonaldeetan bizi dira. Beraz, ezin dira euren komunitateetara itzuli, urrun bizi baitira edota ez baitute beharrezko garraio biderik.

Ikasleen kontura izango da janaria, garraioa eta ikasketak burutzeko Unibertsitateak eskatuko diena. Gehienek El Salvador unibertsitate publikoan egingo dituzte ikasketak.

Bestalde, bai CRIPDES-ek bai bertako komunitateek interes berezia dute beste herrialdeetako brigadekin harreman kulturalak bultzatzeko eta giza taldeekin edota norbanakoekin hainbat arlo teknikoetan kolaboratzeko.

**Helburu orokorra:** Nekazaritza munduan bizi direlarik, errekurtsio gutxiko pertsoneri goi mailako ikasketak egiteko aukera zabaltzea.

**Helburu zehatza:** errekurtsio gutxiko pertsoneri goi mailako ikasketak egiteko aukera zabaltzea.

**Espero diren emaitzak:**

**RE1.** El Salvador-eko nekazaritza inguruetako 14 pertsonen izango dute bizilekua 2009an goi ikasketak egin ditzaten.

**Proiektuaren kokagunea:** Horretarako egoitza San Salvador-en dago, CRIPDES-ek duen bulegoaren ondoan.

Proiektua burutzeko epea: urte bat, 2009ko urtarriletik abendura.

**Metodología:**

Ikasle egoitza:

Proiektu honetan parte hartuko duten ikasleak aukeratuta daude. Aurreko urteetan ikasketak hasita dituztenak dira. Guztiak komunitateko jardunetan CRIPDES elkartearekin batera parte hartzen dutenak dira

Gehienak gazte taldetan ari dira lanean, beste batzuk komunitateen arteko instituzioetan hartzen dute parte. Beraien ekarpena ziurtatzeko lan plangintza bat eskatuko zaie, eta, beraien zeregin akademikoa kontuan izanik, komunitateari zer eskainiko dien zehaztuko da.

Beraien aurrerapen akademikoari jarraipena egingo zaio, sei hilabetean behin notak aztertuta. Gainditzen ez duenak justifikatu egin beharko du egoitzan jarraitu ahal izateko (oinarri kaxkarra, gaixotasuna edo diziplina falta). Bestela, beste pertsona bati utzi beharko diote lekua.

Egoitza-araudia ikasleen partaidetzarekin elaboratuko da, 2009ko lehen lau hilabetetan.

**Ekintzak:**

RE1.1. Ikasle taldea osatzea.

RE1.2 Egoitza 2009rako irekitzea.

RE1.3. Egoitzaren oinarrizko zerbitzuak ziurtatzea.

RE1.4. Garbiketa lanak egitea.

RE1.5. Egoitzaren mantenu eta hobekuntza lanak burutzea.

RE1.6. Ikasketen jarraipena egitea.

RE1.7. Ikasleen betebeharrak komunitarioen jarraipena eta gidaritza ziurtatzea.

**Nortzuk dira zuzeneko onuradunak?**

14 unibertsitateko ikasle, zazpi mutil eta zazpi neska. El Salvador-eko nekazaritza ingurutik datozena keta astean zehar San Salvador-en gelditu beharra dutenak.

## Nortzuk dira zuzeneko onuradunak?

6 komunitatetako biztanleek jasoko dute 14 pertsona hauen prestakuntza profesionalaren onura.

## Eskatutako laguntza

	Aldaketa tipoa	€ 1.00	berdin	\$ 1.31	
Zehaztapena	Unitatea	Kantitatea	Bakoitzeko prezioa	Prezioa guztira	Prezioa guztira
Argindarraren ordainketa	hilabeteak	12	100	\$ 1,200.00	916.03 €
Uraren ordainketa	hilabeteak	12	70	\$ 840.00	641.22 €
Instalazioen mantenua eta hobekuntza	hilabeteak	12	75	\$ 1087.00	829.77€
Garbiketarako materiala	hilabeteak	12	50	\$ 600.00	458.02€
Elkar trukaketarako bidaien gastua				\$ 200.00	152.67€
Azpi-totala				\$ 3,740.00	2,854.96 €
Guztira (Aldaketa tipoa)	1.00Euro =	US\$1.31		\$ 3,927.00	<b>2,997.71 €</b>

## Relación y seguimiento

La persona encargada de este proyecto por CRIPDES es Marta Lorena Araujo Martínez, la persona encargada de la ejecución directa es Hugo Nelson Quintanilla, administrador de CRIPDES. Correo electrónica: [cripdes@telesal.net](mailto:cripdes@telesal.net) / [cripdesoficinacentral@yahoo.com](mailto:cripdesoficinacentral@yahoo.com).  
Tel. (503) 22263717 / 22354005 / fax (503) 22263560.

Al finalizar el proyecto, se presentará un informe que cubrirá el periodo de un año, es decir, Enero a diciembre de 2009.